

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Egoitza artistikoko jarduerak, solasaldiak eta hitzaldiak, zinema, kontzertuak, ikastaroak, erakusketak, eta bisita gidatuak biltzen ditu

Astelehena, 2017.eko urriak 16

Nafarroako Gobernuak honako kultura-jarduera hauek antolatu ditu urriaren 16tik 22ra bitarteko asterako:

KONFERENTZIAK

[Emakume Idazleen Eguna](#)
Nafarroako Liburutegia.
Proiektzio-aretoa
Astelehena / 18:00etan.

Hogei pasarte labur irakurriko dira, ozen.

Nafarroako Liburutegian, 18:00etan hasiko da ekitaldia, proiektzio-aretoan/filmotekan, eta Ainhoa Aznárez Nafarroako Foru Komunitateko Parlamentuko lehendakaria izango da lehena. Ondoren, Mertxe Leránz Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren zuzendariak, Asun Maestro Liburutegi Zerbitzuaren zuzendariak eta Amaia Barandica IPES elkarteko ordezkariak parte hartuko dute.

Gero, hamaika idazle nafarrek –Charo Fuentes, Isabel García Hualde, Isabel Blanco Ollero, Fátima Frutos, Inma Benítez, Ana María Martínez Mongay, Teresa Ramos, Isabel Logroño, Socorro Latasa, Inma Biurrun eta Itziar Ancín– omendutako egileen testuak irakurriko dituzte; Nafarroako Liburutegiak beste hiru idazle nafar gehitu ditu ekitaldira: Julia Guerra, María Markotegi eta Pilar Baigorri.

[Errolanen tradizio nafarra](#)

Nafarroako Museoko ekitadi-aretoan
Asteartea / 19.30etan

Errolanen tradizio nafarra: Donemiliagako oharra eta Munio eskriba.

Óscar Gilarrondo Miguel. Filologia Klasikoto doktorea eta Bigarren Hezkuntzako katedraduna.

Antolatzailea: Sociedad Española de Estudios Clásicos (Nafarroako Atala) eta Nafarroako Museoa.

Sarrena doan, leku guztiak bete arte.

[Schliemann gogora ekarriz](#)



La organista es Marisol Mendive.

Nafarroako Museoko ekitadi-aretoan

Asteazkena / 19.30etan

Schliemann gogora ekarriz. Chanson de Roland eta beronen arakatze arkeologikoa

Mercedes Unzu Urmeneta. Arkeologoa.

Antolatzailea: Sociedad Española de Estudios Clásicos (Nafarroako Atala) eta Nafarroako Museoa.

Sarrena doan, leku guztiak bete arte.

Euskara antzinatean

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia. Artxiboko ekitaldi-aretoa

Asteazkena / 19.00etan

Euskara antzinatean hitzaldia.

Joaquin Gorrochateguiaren eskutik.

Euskara eta Nafarroa zikloa, NAVARRORUM erakusketaren barruan.

ZINEMA

Jerico. El infinito vuelo de los días

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

Film hau zinema eta dokumentalaren arteko muga kokatzen da. Jerico, egunen hegaldi infinitoa (Jerico, el infinito vuelo de los días) obrak Kolonbiako Antioquia eskualdeako Jerico herrian bizi diren emakumeen erretrato hurbilak erakusten ditu. Sentsibiltate handiko gidoi musikal baten bitartez, haien arteko elkarriketak eta uneak erakusten ditu film honek, adin eta egoera sozial anitzetako emakumeen ahotsak bilduz.

Home Movie Day

Nafarroako Filmoteka

Osteguna / 20.00etan

Nafarroako Filmotekak Home Movie Day ekimena ospatuko du aurten ere. Familia eta amateur zinemari eskainitako nazioarteko eguna da, zinema artxiboetako aditu talde baten eskutik Estatu Batuetan 2002.urtean sortu zena (aurtengo edizioan, beraz, XV. urteurreuna ospatuko da).

Javier Asinek zuzeneko piano ikuskizun batekin lagunduko du saio hau.

Sarrera doakoa

Proiektzio honetarako sarrerak lehiatilan bakarrik saltzen dira.

Mi adorado Juan

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 20.00etan

Mihuraren umore paregabea erakusten du obra honek, bere anai Jeronimoren egokitzapenaren bitartez. Aktore sekundario multzo bikainaren laguntzaz, erabat surrealista den umorezko korapilo honi sinesgarritasuna ematen diote.

Zinema historialari eta kultur kudeaitzaile Felipe Cabrerizok aurkeztuko du saioa.

KONTZERTUAK

Organorako Musika Zikloa

Haizearen koloreak

Iruñeko Jasokunde Eliza

Ostirala / 19.00etan

Kontzertu komentatua.

Musika erromantikoa eta gure lurretik kanpo lan handia egin duten bertako egileak.

Marisol Mendive, organo jolea. spainiako hainbat hiriburutan eta Italiako, Belgikako, Suitzako, Kroaziako, Norvegiako, Portugaleko, Alemaniako eta Mexikoko zenbait hiritan eman ditu kontzertuak.

Organorako Musika Zikloa

Kontzertu didaktikoa

Larragako San Migel Eliza

Larunbata / 18.30etan

Sarrera doan edukiera bete arte.

Marisol Mendive, organo jolea.

“Un rato no tubo” elkarte Galiziako organo ondarea ikasleen artean hedatzeko lan handia ari da egiten azken urteetan. Oraingo honetan, bere jardueretako bat Larragako San Migel elizan egingo dute, herri horretako Diego Gómez Musika Elkartearekin eta San Migel Ikastetxe Publikoarekin lankidetzan.

Kontzertua ikus-entzule guztiei zuzendurik egongo da. Halaber, beste saio berezi bat eskainiko da, Larragako San Migel Ikastetxe Publikoko ikasleei zuzendurik.

TAILERRAK

Ongi etorri ipuinetara

Nafarroako Liburutegia. Haurrentzako aretoa

Asteazkena / 18.00etan

Saioa ingelesez.

Ipuin-kontalaria. Boz gorako irakurraldia. Gaztelaniazko saioa

Sarrera librea aretoa bete arte.

Jarduera boluntarioekin egiten da. Eman izena.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez irakurriko dira ipuinak.

ERAKUSKETAK

Navarrorum

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2017/09/21 - 2017/12/31

Bisita gidatuak: Larunbatetan, igandeetan: 11.00etan (euskaraz) 12.00etan (gaztelaniaz)

NAVARRORUM ez da euskararen historiari buruzko erakusketa bat. Baina, zernahi gisaz, aurre egiten dio erronka jakin bati: idazki batzuen bidez euskararen aztarna dokumentala agertzea, kontuan izanda ia mila eta bostehun urtean ahozko mintzoa izan zela. Ahozko hizkuntza, idazten ez zena. Erakusketarako, hiru dozena dokumentu hautatu ditugu. Euskarazko agiriez gain, euskarari buruzko agiriak ere badaude

tartean. Den-denek badute bereizgarri bat, nafartasuna: Nafarroari buruzkoak, Nafarroan idatziak edo nafarrek eginak dira. Gehienak gure artxibo, museo eta liburutegietatik hartu ditugu, baina badaude Afrikako, Ameriketako eta Europako beste dokumentu zentroetakoak ere.

[Kamera ilunaren bitartez](#)

Karlismoaren museoa

2017/05/17 - 2017/11/05

Karlismoaren Museoak aldi baterako erakusketa berri bat biltzen du, irailaren 5era arte ikusgai egonen dena. Asunción Domeño du komisarioa, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta argazkilaritzan aditua. Erakusketak, argazkilaritzaren aurrekarietan murgilduta, hasierako prozedura fotografikoak aztertzen ditu, hala nola dagerrotipoa edo kalotipia, baita aristotipoak, argazki artistikoa edo inprimaketa-argazkia ere.

EGOITZA ARTISTIKOA

[Fanzine-egileen egoitza](#)

Huarte zentroa

2017/10/02 - 2017/10/20

Fanzine-egileen egoitza Rurru Mipanochia, Gelen Jeletón, Liebana Goñi, Cristina Jiménez, Irati Fernández Gabarain

“Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerreña” erakusketa-proiektuaren zati da.

BESTELAKOAK

[Huarte Zentroa: 10. urteurren festa](#)

Huarte Zentroa

Larunbata / 18.00etan

Urriaren 21ean Uharte Zentroaren 10. Urteurrena ospatuko dugu eta horretarako... Festa handi bat antolatzen ari gara! Festak ate irekien egun bat izan nahi du, une berean espazio desberdinetan ekintza desberdinak garatzeko aukera emango du, modu part-harztailean efemeridea ospatzeko.

BISITAK ETA IBILALDIAK

[Bisita gidatua Iruñeko katedralaren](#) klaustroa konpontzeko lanetara

Iruñeko katedrala

Igandea, 10:00 / 11:00 / 12:00

Ekainean bukatu ziren Iruñeko katedralako klaustroaren iparraldeko aldea zaharberritzeko lanak; 2016ko

abuztuan hasi ziren, eta hormartearen barnean eta lorategiko fatxadan egin dira. Horregatik, Nafarroako Gobernuko Ondarearen Zerbitzuak doako bisita gidatuen programa bat antolatu du, lan horiek bertatik bertara ikusteko aukera ematen duena.

Erreserbak Nafarroako Ondare Historikoa Kontserbatzeko Fundazioaren webgunean
(<http://visitas.fcpatrimoniodenavarra.com/>).